



Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako
unibertsitateko ikasleen Unibertsitateko emaitzak

Informazioaren erabilera eta telebistaren kontsumoa

58. TXOSTENA · 2025EKO EKAINA



AURKIBIDEA

IKUSIKER.....	2
FITXA TEKNIKOA.....	3
EMAITZAK.....	4
IKUSITAKO AZKEN EDUKIAK.....	4
Interneten	4
Telebistan.....	7
INFORMAZIOA	10
TELEBISTA	31
LABURREAN	41

IKUSIKER

Gazteek ikus-entzunezkoak kontsumitzeko eta Informazio eta Komunikazio Teknologia (IKT) erabiltzeko ohiturak, moduak eta joerak aztertzen ditu IKUSIKER Ikus-entzunezkoen Behategiak. 2018/2019 ikasturtean sortu zen eta gaur egun NOR Ikerketa Taldeaz gain EITBk, Kulturaren Euskal Behatokiak eta Euskararen Erakunde Publikoak osatzen dute IKUSIKER Behategia (US24/29).



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

Sarriena auzoa z/g, 48940 Leioa (Bizkaia)

+34 747 414 355

ikusiker@ehu.eus

Egileak: Edorta Arana Arrieta, Bea Narbaiza Amillategi, Garazi Sánchez Murciano, Ane Zugaza Goienetxea, Jone Hernández Perez de Gereñu, Helene Sagarzazu Aizpuru, Mikel Peña Sarrionandia, Itziar Zorita Agirre eta Maialen Goirizelaia Altuna.

Ikerketa hau burutzeko Aztiker Soziologia Ikerlanean laguntza jaso da eta Encuestafacil aplikazioa erabili da *online* galdetegiak betetzeko.



FITXA TEKNIKOA

2024-2025 ikasturtean, IKUSIKERen Unibertsitateko panelean bat egiten dute Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA/NUP) ia bi mila ikaslek. Laginean lurralde, jakintza-arlo, fakultate eta ikasketa-maila desberdinetako gazteak daude. Landa-lanari dagokionez, ikasturtearen hasieran aurrez aurre ikasgeletan betetzen dute lehen inkesta eta, hortik aurrera, panelean parte hartzeko baiezkua ematen duten ikasleei Whatsappez bidaltzen zaizkie hurrengoko bost galdetegiak, hilean behingo maiztasunarekin.

Txosten honetan aurkitu daitezke 2025eko apirilaren 7 eta 11 bitartean informazioari eta telebistari buruz egindako inkestaren emaitzak. Guztira, 1730 ikasleren erantzun baliagarri jaso dira.

IKUSIKERen Unibertsitateko panela UPV/EHU eta UPNA/NUPeiko ikasle guztien errepresentagarri da. Unibertso horren kopurua lortzeko, laginaren datuen gaineko ponderazioa egin da, eta horretarako, aldagai hauek erabili dira:

- Sexua/generoa
- Unibertsitatea
- Herrialdea
- Ikasketa-eremua
- Ikasketa-maila

EMAITZAK

IKUSITAKO AZKEN EDUKIAK

Interneten

Ondoko hitz-hodeiak gazteek Interneten ikusitako azken edukiaren inguruko erantzunak jasotzen ditu, kontuan hartuta inkesta 2025eko apirilaren hasieran bete zutela.


1. irudia: Interneten ikusitako azken edukien hitz-hodeia.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Aurreko txostenetan aurkeztutako datuen joerari jarraituz, unibertsitateko ikasleei azken kontsumoa non egin duten galdetu zaienean Youtube eta Instagram gailentzen dira. Mutilek gehien aukeratzen duten sare soziala da Youtube (% 44,2), eta Instagram neskontzat (% 29,8). Gizonen kasuan, Youtube eta Instagramen arteko aldea handiagoa da (24,4 puntu) neskena baino (7,7 puntu). TikTokek hirugarren lekua hartzen du, kategoria honetan neskak gehiago izanik.


2. irudia: Interneten azken edukia ikusteko plataforma. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Ikasketa-mailaren arabera banaketan ikusten da maila altuagoko ikasleek gehiago erabiltzen dutela Youtube, Instagram baino, Interneteko azken kontsumoa egiteko. Izan ere, laugarren mailako ikasleen ehunekoa Instagramen kategorian besteenak baino baxuagoa da (%17,8). Nahiz eta Instagramena eta Youtuberena baino baxuagoa izan, TikTok presentzia agerikoagoa da lehen eta bigarren mailako ikasleen artean (%12,9 eta %14,1, hurrenez hurren).

3. irudia: Interneten azken kontsumoa egiteko erabilitako plataforma. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Telebistan

Inkestaren bitartez ere jakin daiteke nolakoa den telebistan egin duten azken kontsumoa, kontuan hartuz ikasleek apirilaren 7 eta 11 bitartean erantzun dutela galdetegia.


4. irudia: Telebistan ikusitako azken edukien hitz-hodeia.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Beheko grafikoan erakusten denez, La1 aukeratu du ikasleen ia % 20k telebistan egin duen azken kontsumoa zein kanaletan egin duen erantzuterakoan. Antzeko ehunekoak antzematen dira kategoria honetan ere generoaren arabera: banaketan. Ez da gauza bera gertatzen bigarren postuan dagoen ETB2 kanalean: emakumeen ehunekoa gizonena baino 6 puntu altuagoa da. 2025eko apirilaren 7 eta 11 bitartean erantzun den galdetegi honetan Tele5k lau postu behera egin du [aurreko txostenarekin](#) konparatuz, ikasleen ia ehuneko hamar bilduz. Beti bezala, nesken ehunekoa nabarmen handiagoa da mutilena baino. ETB1ek laugarren lekua hartu du zerrendan, mutilen nagusitasuna erakutsiz (% 15,3).


5. irudia: Telebistan azken kontsumoa egiteko erabilitako kanala. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Mailakako banaketari begiratuz: badira arreta deitzen duten zenbait datu. Laugarren mailako ikasleen presentzia ETB2 kategorian oso handia da gainerako mailetako ikasleen ehunekoekin konparatuta. Izan ere, laugarren mailako ikasleek La1 baino gehiago aukeratu dute ETB2 telebistako azken kontsumoa zein kanaletan egin duten galdetu zaienean. Bestalde, lehenengo eta bigarren mailako ikasleek gehiago aukeratu dute Tele5 kanala eta ETB2k baino ehuneko altuagoak bildu ditu maila horietan.

6. irudia: Interneten azken kontsumoa egiteko erabilitako plataforma. Ehunekoak ikasketa-mailaren arabera.




Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

INFORMAZIOA

Galdetegiaren bidez unibertsitateko ikasleek informazioaren inguruan dituzten pertzepzioak jaso nahi izan dira. Besteak beste, informazioarekiko interes mailari, hura kontsumitzeko euskarri gogokoenari, informazioa jasotzeko sare sozialen erabilerari edota tokiko komunikabideei buruz galdetu zaie, gai honi buruzko irudi ahalik eta osoena jaso ahal izateko.

Datuek ez dute generoaren arabera alde nabarmenik erakusten. Guztirako ehunekoek agerian jartzen dute unibertsitateko ikasleen ia erdiak nahiko interesekoa duela informazioa. "Batuetan bakarrik" jarrera neutralagoaren eta muturragokoa den "informazioa asko interesatzen zait" kategorien ehunekoak antzekoak dira (% 20 inguru), bigarrena apalena bada ere. Interes baxuak edo hutsalak ez du ikasleen % 8 biltzen.


7. irudia: Informazioarekiko interes maila. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Beheko grafikoan ikasketa-mailaren arabera datuak agertzen dira. Nahiko interesatuta dauden ikasleen ehunekoak behera egiten du mailan gora joan ahala (batez ere laugarren mailan), baina horren arrazoa "informazioa asko interesatzen zait" kategoriari begiratzean ulertzen da: kasu horretan, laugarren mailako ikasleak nagusi dira (% 28,8).


8. irudia: Informazioarekiko interes maila. Ehunekoak ikasketa-mailaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Datuak ikasketa-eremuaren arabera banaketan aurkezten dira behean. Azpimarratzekoa da Osasun Zientzietako ikasleen nagusitasuna nahiko interesatuta daudenen ikasleen artean (% 60,7). Orokorrean, arlo guztietan informazioarekiko interesa egon badagoela ikusten den arren, jarrera neutralagoan kokatzen dira gehiago Ingeniaritza eta Arkitektura eta Zientzietako ikasleak.

9. irudia: Informazioarekiko interes maila. Ehunekoak ikasketa-eremuaren arabera.




Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Ondoko grafikoak ikasleek albisteak non kontsumitzen dituzten erakusten du. Guztirako datuak aurkezten dira soilik, generoaren, ikasketa-mailaren eta ikasketa-eremuaren arabera banaketek ez baitituzte alde nabarmenik erakusten.

Ikasleen erdiak baino gehiagok sare sozialak erabiltzen ditu albisteen berri izateko. Laurden batek telebista tradizionala aukeratzen du, eta "Internet" kategoria ez da % 10era iristen. Medio tradizionalagoek eta tokikoek lortzen dituzten ehunekoak % 5etik behera daude denak.


10. irudia: Albisteak kontsumitzeko erabilitako euskarriak. Ehunekoak guztira



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Era berean, jakin nahi izan da zer formatutan nahiago duten ikasleek albisteak jaso. Aukera gisa "ikusi", "irakurri", "entzun" eta "ez dakit" eman dira. Guztirako ehunekoak ikusita, ikasleen erdiak baino gehiago nahiago du albisteak ikustea, neskak mutilak baino gehiago (% 60,8 eta % 49,2 hurrenez hurren). Albisteak irakurtzea nahiago duten ikasleak gutxiago dira (laurden bat, gutxi gora behera), baina talde horren barruan gehiago dira mutilak.


10. irudia: Albisteak kontsumitzeko gogoko estimulak. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Ondoren, galdera berberaren erantzunaren inguruko datuak azaltzen dira mailaz maila. Grafikoak argi erakusten du alderantzizko joera ematen dela: mailan gora joan ahala albisteak ikustea nahiago duten ikasleen ehunekoa jaitsiz doa, baina kontrakoa gertatzen da irakurketaren kasuan. Dena den, kontuan hartu behar da "ikusi" eta "irakurri" kategorien datu altuenen arteko aldea 25 puntu ingurukoa dela, hau da, ikasleek orokorrean, gehiago erabiltzen dituztela ikusteko moduko formatuak irakurtzekoak baino.


11. irudia: Albisteak kontsumitzeko gogoko estimuluak. Ehunekoak ikasketa-mailaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Ikasketa-eremuaren arabera banaketa ikusiz, Osasun Zientzietako ikasleek batez ere albisteak ikustea gogoko dutela ondorioztatzen da. Oso ezberdina da Arteak eta Gizarte Zientzietako ikasleen kasuan, non "irakurri" kategoria, gutxigatik bada ere, "ikusi" kategoriari gailentzen zaion. Zientzietako ikasleen kasua nahiko antzekoa da.

12. irudia: Albisteak kontsumitzeko gogoko estimuluak. Ehunekoak ikasketa-eremuaren arabera.




Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Lehenago, ikasleen informazioarekiko interes-maila nolakoa den ikusi da. Galdera horretan sakonduz, tokiko informazioaz, albiste lokalekiko duten lotura ezagutu nahi izan da.

Kasu honetan, informazioaren inguruko aurreko grafikoekin konparatuz, ehuneko baxuagoak biltzen ditu "nahiko interesatuta nago" kategoriak baina altuagoak muturrekoagoa den "asko interesatzen zait" erantzunean. Azken kategorია honetan biltzen diren gizonen eta emakumeen ehunekoa berdina da (% 31).


13. irudia: Tokiko informazioarekiko interes maila. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Ikasketa-mailaren arabera banaketak aurretik eginiko informazio orokorrarekiko interesaren antzeko erantzuna erakusten du. Orokorrean, interesa altua da, baina mailan gora egin ahala areagotu egiten da.


14. irudia: Tokiko informazioarekiko interes maila. Ehunekoak ikasketa-mailaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Datuak ikasketa-eremuka aztertuz, Gizarte eta Lege Zientzietako eta Arteak ete Giza Zientzietako ikasleak dira tokiko informazioarekiko interes altuena erakusten duten ikasleak. Jarrera pattalagoan ("batzuetan bakarrik") nagusi dira Ingeniaritza eta Arkitekturakoak (% 37,1)


15. irudia: Tokiko informazioarekiko interes maila. Ehunekoak ikasketa-eremuaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Galdetegiaren bitartez jakin daiteke ikasleek informazioarekin zein-nolako interakzioak izaten dituzten (albisteak partekatu, "like" eman, iruzkindu, sortu...). Guztirako ehunekoen arabera, ohikoena interakziorik ez edukitzea da (% 39,7), baina oso gertutik bigarren lekua hartzen du "albiste bat iruzkindu" kategoriak (% 33,9). Ikasleen ia laurdenak albisteak partekatzen ditu.


16. irudia: Ikasleek albisteekin izandako interakzioak. Ehunekoak guztira.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Gizartea eta Lege Zientzietako ikasleak dira albisteak gehien partekatzen dituztenak eta Osasun Zientzietakoak albisteak gehien iruzkintzen dituztenak: ikasle horien artean gehiago dira albisteak iruzkintzen dituztenak (% 42,1) interakziorik sortzen ez dituztenak baino (% 35,1).


16. irudia: Ikasleek albisteekin izandako interakzioak. Ehunekoak ikasketa-eremuaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Uneoro eskura ditugun pantailak informazio-iturri amaigabea dira, eta horregatik jakin nahi izan da ikasleek inoiz informazioa saihestu ote duten, eta hala bada, zergatik egin duten. Ondoko grafikoan ikusten den bezala (ehunekoak guztira), ikasleek ez dute ohitura handirik informazioa alboratzeko. Lau ikasletik hiruk "oso gutxitan" edo "inoiz ez" du informazioa ekidin. Batzuetan eta askotan egiten dutenen ehunekoa ozta-ozta iristen da % 30era.


17. irudia: Ikasleek informazioa saihesteko ohitura. Ehunekoak guztira.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Datuak mailaka banatzean, ikusten da informazioa oso gutxitan saihesten dutenen ehunekoak behera egiten duela. Laugarren mailako ikasleek ehuneko altuagoak aurkezten dituzte informazioa batzuetan eta askotan ekiditen dituztenen artean eta baxuagoak "oso gutxitan" eta "inoiz ez" kategorietan. Hau da, orokorrean laugarren mailako ikasleek gehiago saihesten dute informazioa.


17. irudia: Ikasleek informazioa saihesteko ohitura. Ehunekoak ikasketa-mailaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Ikasleen laurden batek dio ez duela informazioa alboratzen eta gainerako ehunekoak hainbat arrazoi aipatzen ditu hori egiteko. Motibazio ohikoena, jasotzen duten informazio kopuru handiegia da, ikasleen % 21,5ek hala erantzun du. Hurrengo arrazoi bozkatuena "informazioa ikusi ostean gaizki sentitzen naiz" da eta emakumeen presentzia gizonena baino altuagoa da kategoria honetan (6 puntu ingurukoa). Gizonak emakumeen aurretik jartzen dira informazioaren fidagarritasun eza aipatzerakoan (% 15,4 eta % 8,8). Ildo beretik, gizonen % 10,7k uste du informazioa sesgatua dela eta ikasleen gainerako ehunekoak bestelako arrazoiak daudela esaten du.


18. irudia: Ikasleek informazioa saihesteko arrazoiak. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Lehenago aurkeztutako informazioa saihesteko grafikoaren azalpena osatuz, eta galdera honen erantzuna ikasketa-mailaren arabera aztertuta, ikusten da laugarren mailakoak ehuneko baxuenean daudela informazioa alboratzen ez dutenen ikasleen artean (% 19,1). Izan ere, ikasle horiek gehiago bozkatu dute "informazio kopurua handiegia da", eta hurbiletik jarraitzen dio informazioa ikustean gaizki sentitzeko arrazoiak (% 17,1).

19. irudia: Ikasleek informazioa saihesteko arrazoiak. Ehunekoak ikasketa-mailaren arabera.




Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Hurrengo grafikoetan informazioaren inguruko zenbait esaldien gaineko adostasun maila aurkezten da.

Ikasleen ia erdiak (% 47,7) bat egiten du "Sinesgarritasuna dute sare sozialetan ikusten ditudan albisteek" esaldiarekin, baina zalantza daukaten ikasleen ehunekoa ere ez da makala (% 40,2).


20. irudia: "Sinesgarritasuna dute sare sozialetan ikusten ditudan albisteek" esaldiarekiko adostasun maila. Ehunekoak guztira.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Unibertsitariei galdetu zaienean noraino gustatzen zaien komunikabide lokalen bidez herriko, auzoko ala hiriko aktualitatea jarraitzea, hamarretik 4 pasatxok aldeko erantzunak eman dituzte (% 16 guztiz ados eta % 26,2 nahiko ados). Beste hiru guztiz ala nahiko aurkako iritzikoak dira eta % 27,3 erdiko kokalekua aukeratzen du.


21. irudia: "Aktualitatea jarraitzea euskarazko komunikabide lokalen bidez, herriko, auzoko ala hiriko aldizkari, telebista ala irratien bidez gustatzen zait" esaldiarekiko adostasun maila. Ehunekoak guztira.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Sare sozialen ildo jarraituz, "jendearen iritzietan eta portaeretan sare sozialek eragin handia daukate" esaldiaren inguruko iritzia jasotzen da hurrengo grafikoan. Kasu honetan, ikasleen arteko adostasuna maila altua da, horien % 91,9k bozkatu baitu aldeko erantzuna. Ez ados, ez kontra eta aurka dauden ehunekoa ez da guztira ehuneko hamarrera iristen.


22. irudia: "Jendearen iritzietan eta portaeretan sare sozialek eragin handia daukate" esaldiarekiko adostasun maila. Ehunekoak guztira.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Beste esaldietako baten bidez, informatuta egoteko webguneak erabiltzen ote dituzten galdetu zaie ikasleei. Erdia pasatxok (% 54,2) bere adostasuna erakusten du, maila ezberdinean bada ere.


23. irudia: "Informatuta egoteko komunikabideen webguneak erabiltzen ditut" esaldiarekiko adostasun maila. Ehunekoak guztira.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Aztertzen den azken esaldia honakoa da: "Hauteskundeak daudenean, sare sozialetan ikusitakoak eragin handia izaten du jendeak botoa nori eman erabakitzerakoan". Ikasleen % 58,6 ados dago eta beste % 29,5ek ez du sare sozialen eragina hain modu garbian ikusten. Sare sozialen eragina ukatzen dutenen kopurua ez da % 12tik gora pasatzen..


24. irudia: "Hauteskundeak daudenean, sare sozialetan ikusitakoak eragin handia izaten du jendeak botoa nori eman erabakitzerakoan" esaldiarekiko adostasun maila. Ehunekoak guztira.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Kasu honetan merezi du datua ikasketa-eremuaren arabera aztertzea, badagoelako grafikoan gailentzen den barra bat. Arte eta Giza Zientzietako ikasleak gainerakoak baino adostasun maila altuagoa daukate, ikasle horien hiru laurden batuz.

25. irudia: "Hauteskundeak daudenean, sare sozialetan ikusitakoak eragin handia izaten du jendeak botoa nori eman erabakitzerakoan" esaldiarekiko adostasun maila. Ehunekoak ikasketa-eremuaren arabera.




Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

10. irudiko grafikoan erakusten da ikasleen erdiak baino gehiagok sare sozialak erabiltzen dituela euskarri gisa informatzeko, baina datu honetan pixka bat sakontzeko informatzeko gehien erabiltzen dituzten sare sozialez galdetu zaie.

Interneten egindako azken kontsumoaren plataformen grafikoetan ikusi ohi dugun bezala, generoaren arabera aldea ikusten dira hemen ere. Emakumeen artean aukera bozkatuena Instagram da (% 39,4), hurbil egonik TikTok (% 32,2). Gizonezkoen kasuan, aldiz, X da aukeratuena, horien % 42,2 bilduz. Atzerago dator Instagram (% 39,4). TikTok aukeratu duten mutilen ehunekoa 12,2koa da.


26. irudia: informatzeko sare sozial erabilieta. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Datuak ikasketa-mailaren arabera banaketan ikusita, TikTok beherakada handia nabaritzen da mailan gora joan ahala. Justu kontrakoa antzematen da Xren kasuan, non mailan gora doazen neurrian ehunekoek gora egiten duten era nabarmenean, Xk laugarren mailako ikasleen % 43,3 bildu arte.


27. irudia: informatzeko sare sozial erabilienean. Ehunekoak ikasketa-mailaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Informatzeko sare sozialak erabiltzen dituztenen artean, jakin nahi izan da zelan erabiltzen dituzten plataformak zehazki gaurkotasunaren berri izateko. Ikasleen erdiak baino gehiagok komunikabideek sare sozialetan partekatzen dituzten edukiak aukeratu dituzte, neskek (% 59,5) mutilek baino gehiago (% 47,7). Gizonezkoak gehiago dira sareko erabiltzaileek sortutako edukiak kontsumitzen dituztenen ikasleen artean, neskak baino hamar puntu gehiago.


28. irudia: Sare sozialetan informatzerako orduan, gehien kontsumitutako eduki motak. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Konkretuki sare sozialei, eta era zabalagoan informazioari buruzko atala ixteko, hurrengo irudian gazteek sare sozialetan nahiago dituzten formatuak laburbiltzen dira. Ehunekoak era nahiko homogeenan banatzen dira aukeran dauden formatuen artean. Dena den, gizonen formatu gogokoena Xko hariak dira (% 22,7), neskekiko hamar puntuko aldea ezarritik. Nesken lehenengo postuetan, aldiz, story-ak eta azpitituludun bideo laburrak nabarmentzen dira.


29. irudia: Sare sozialetan informazioa jasotzeko formatu gogokenak. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Ikasketa-mailaka banatutako datuek erakusten dutenez, laugarren mailako ikasleen aukera gogokoena dira Xko hariak (% 20,1), gainerako ikasleena ez bezala. Laugarren mailako ikasleek Xko txioak gogoko dituzte.

30. irudia: Sare sozialetan informazioa jasotzeko formatu gogokenak. Ehunekoak ikasketa-mailaren arabera.




Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

TELEBISTA

Sare sozialen presentzia ukaezina da gazteek gaurkotasunaren berri izateko duten euskarriez ari garenean, baina telebistaz ere jakin nahi izan da. Informazioaren ildo jarraituz, inkestaren bidez galdetu da ea gazteek telebista erabiltzen duten informazioa jasotzeko.

Oro har, ikasleen ia % 70ek baiezko erantzuna eman du, kopurua nesken artean altuagoa izanik.


31. irudia: Ikasleek telebista erabiltzen duten informazio iturri gisa. Datuak guztira eta generoaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Telebista kontsumoaren azterketarekin aurrera eginez, medioa erabiltzeko maiztasunari buruz galdetu zaie. Gazteen telebista kontsumo maiztasuna antzekoa da sexuaren, ikasketa mailaren eta ikasketa arloaren arabera. Gutxienez astean behin kontsumitzen dutenak gazteen % 73 dira, eta gutxienez egunean behin kontsumitzen dutenak % 26,9. Ikasleen %10,6k aitortzen ez duela telebistarik ikusten.


32. irudia: Telebista kontsumitzeko maiztasuna. Ehunekoak guztira.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Unibertsitarioen artean, antzerako ehunekoetan daude telebista kontsumitzen dutenen eta albistegiak ikusten dutenen kopuruak. Hala ere, geroago ikusiko denez, albistegiak ez dira gazteek lehenesten dituzten edukiak: horien aurretik daude entretenimenduzkoak edo fikziozkoak.


33. irudia: Telebistako albistegiak ikusteko maiztasuna. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Albistegiak ikusteko kanal gogokoena zehazteko eskatu zaienean, bai emakume zein gizonezkoen artean La1 izan da aukeratuena. Bigarren lekuan dago ETB2. Aipatzekoa da mutilek gehiago aukeratu dutela Euskal Telebistaren lehenengo kanala bigarrena baino.


34. irudia: Telebistako albistegiak ikusteko kanal gogokoena. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Ikasketa-mailari dagokionez, 4.mailakoek asko nabarmendu dute ETB2 albisteak kontsumitzeko orduan. Aldiz, gainontzeko mailetako ikasleek La1 kanala bozkatu dute gehien.


35. irudia: Telebistako albistegiak ikusteko kanal gogokoena. Ehunekoak ikasketa-mailaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Hurrengo irudian ikasleek albistegiak ikusten ematen duten denbora azaltzen da. Gazteen % 64 0-30 minutuko tartean kokatzen da.


36. irudia: Telebistako albistegiak ikusteko denbora. Ehunekoak guztira.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Azkenik, telebistako albistegiekin jarraituz, sinesgarritasunaren inguruan galdetu denean, ikasleen erdiak 7-8ko nota eskaini die albistegiei.

37. irudia: Telebistako albistegien sinesgarritasunari jarritako nota. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.




Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Gazteek gustuko duten edukiari dagokionez, entretenimenduzkoa gailentzen da. Aipatzekoa da kontsumo zehatz hau ezberdina dela generoaren arabera. Alegia, emakumezkoen %50,8k nahiago du entretenimenduzko edukia, gizonezkoen %25,9rekin alderatuta. Izan ere, generoaren arabera desberdinketa hau agerikoa

da kiroleetan ere: gizonetzkoen % 21ek aukeratzen duen bitartean, emakumezkoen % 4,9ren hautua da.


38. irudia: Ikasleen telebista kontsumo gogokoenak. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Eduki motaren lehentasunari ikasketa-mailaren arabera begiratzen badiogu ordena mantentzen da, eta ez da zaletasun ezberdinik agerian uzten kurtsoaren arabera. Aipatzekoa da aktualitateko erreportajeek interes handiagoa pizten dutela hirugarren eta laugarren kurtsoetako ikasleen artean, eta aldiz, fikziozko edukiak gehiago ikusten direla lehenengo eta bigarren mailako ikasleen gailuetan.


39. irudia: Ikasleen telebista kontsumo gogokoenak. Ehunekoak ikasketa-mailaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Ariketa berdina ikasketa-eremuaren arabera egitean, aipatzekoa da arlo bakoitzeko ikasleek eduki mota ezberdin bati erreparatzen diotela, nahiz eta ikasle guztiek lehentasun maila antzekoa erakutsi eduki mota ezberdinekiko (denek lehenesten dute entretenimendua, fikziozkoak ondoren eta albistegiak eta kirola horien ostean). Hala ere, entretenimenduaren kontsumitzaileen artean Osasun Zientzietako ikasleak bereizten dira, eta Zientzietako ikasleak fikziozko edukietan. Azkenik, aipatu daiteke alde gutxiarekin bada ere, Arte eta Giza Zientzietako ikasleak direla albistegiak gehien kontsumitzen dutenak.

40. irudia: Ikasleen telebista kontsumo gogokoenak. Ehunekoak ikasketa-eremuaren arabera.




Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Lehen kanalei buruz aritu gara albistegien inguruko datuak eskaintzean. Oraingoan gazteen kanal gogokoenak aurkeztuko dira, orokorrean, kategoria zehatzik zehaztu gabe.

Hasteko, esan beharra dago gazteek kontsumitzen dituzten kanalak asko eta anitzak direla, eta ondorioz, horien kontsumoa sakabanatuagoa dagoela. Gauzak horrela, esan daiteke gazteek La1, ETB2, FDF, Tele5 eta ETB1 kontsumitzen dutela maila handi batean (% 16,29 eta % 10,07 artean). Urrun geratzen dira La2 (% 1,2), #0 (% 0,6) eta ETB3 (% 0,2). Kanalen kontsumoa generoaren arabera ikertzen bada, agerikoa da

ezberdintasunak egon badaudela: gizonezkoek gehiago kontsumitzen dituzte La1 eta FDF; emakumezkoek, aldiz, ETB2 eta Tele5.


41. irudia: Ikasleen telebista kanal ikusienak. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Kanalen kontsumoa ikasketa-mailaren arabera aztertuta, agerikoa da lehenengo eta bigarren mailako ikasleek FDF lehenesten dutela, eta laugarren mailakoek ETB2.

42. irudia: Ikasleen telebista kanal ikusienak. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.




Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Orain arte telebistaren kontsumo orokorrari erreparatu zaio, baina hurrengo grafikoetan euskarazko edukien kontsumoari egingo zaio erreferentzia.

Hasteko, aipatzekoa da gazteen %72k ez duela euskarazko edukirik ikusteko ohiturarik. Gainera, ez dago generoaren arabera kontsumo-patroi ezberdinik. Hala ere, esan behar da gazteen herenak, gutxienez, astean behin ikusten duela telebistako edukiren bat euskaraz.


43. irudia: Telebistan euskaraz edukiak ikusteko maiztasuna. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Telebistari buruz galdetzen zaien inkesta honetan, bertako kanalek haien egunerokoan duten presentzia neurtu nahi izan da. Datuei erreparatuz, ondoko irudian ikus daiteke oro har, lau ikasletik hiruk ez duela inoiz kontsumitzen bertako telebistarik.


44. irudia: bertako telebista kanalak ikusteko maiztasuna. Ehunekoak guztira.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Telebista lokala ikusten duten emakumeen artean, eduki bozkatuena izan da entretenimendua % 32rekin. Gizonezkoen kasuan aldiz, formaturik aukeratuena aktualitateko erreportaje edo dokumentalak dira, albistegiekin batera.


45. irudia: Telebista lokalean gehien ikusitako edukia. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Ikasketa-mailaren arabera, azpimarratzekoa da 4.mailako ikasleek telebista lokalean kontsumitzen duten eduki nagusia albisteak direla, beste mailekin alde nabaria markatuz. 3.mailako ikasle direnen artean, eduki bozkatuenak aktualitateko erreportaje eta dokumentalak dira.


46. irudia: Telebista lokalean gehien ikusitako edukia. Ehunekoak ikasketa-mailaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

Beheko grafikoari begiratuz ikusten da ikasleen laurden batek 7ko nota ematen diola telebistari. Emakumeen artean bigarren nota bozkatuena 6koa den bitartean, gizonezkoetan 5koa da.

47. irudia: Orokorrean, telebistari jarritako nota. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko apirila

LABURREAN

AZKEN KONTSUMOAK

- Interneten egindako azken kontsumoaz galdetzen denean, YouTube da mutilek gehien aukeratzen duten sare soziala da (% 44,2), eta Instagram neskontzat (% 29,8).
- Ikasketa-mailaren arabera banaketan ikusten da maila altuagoko ikasleek gehiago erabiltzen dutela Youtube.
- La1 aukeratu du ikasleen ia % 20k telebistan egin duen azken kontsumoa zein kanaletan egin duen erantzuterakoan.
- Telebistan azken kontsumoa egiteko ETB2 aukeratu duten emakumeen ehunekoa gizonena baino 6 puntu altuagoa da (% 16,4 eta % 10,3).
- Laugarren mailako ikasleen presentzia ETB2 kategorian oso handia da gainerako mailetakiko ikasleen ehunekoekin konparatuta (% 20,9 laugarren mailan eta % 10en bueltan gainontzekoetan).

INFORMAZIOA

- Unibertsitateko ikasleen ia erdiak "nahiko interesekoa" du informazioa. Interes baxuak edo hutsalak ez du ikasleen % 8 biltzen.
- Laugarren mailako ikasleek informazioarekiko duten interes maila besteei baino altuagoa da.
- Azpimarratzekoa da Osasun Zientzietako ikasleen nagusitasuna informazioarekiko nahiko interesatuta daudenen ikasleen artean (% 60,7).
- Ikasleen erdiak baino gehiagok sare sozialak erabiltzen ditu albiste berri izateko, laurden batek telebista tradizionala aukeratzen du, eta "Internet" kategoria ez da % 10era iristen.
- Ikasleen erdiak baino gehiago nahiago du albisteak ikustea, neskak mutilak baino gehiago (% 60,8 eta % 49,2 hurrenez hurren).
- Mailan gora joan ahala albisteak ikustea nahiago duten ikasleen ehunekoa jaitsiz doa, baina kontrakoa gertatzen da irakurketaren kasuan.
- Ikasleen % 70ek tokiko informazioarekiko interesa erakusten du.

- Datuak mailaka aztertuz, tokiko informazioarekiko interesa altua da, baina mailan gora egin ahala areagotu egiten da.
- Gizarte eta Lege Zientzietako eta Arteak ete Giza Zientzietako ikasleak dira tokiko informazioarekiko interes altuena erakusten duten ikasleak.
- Lau ikasletik hiruk "oso gutxitan" edo "inoiz ez" du informazioa ekidin eta datuari mailaka banatzean, ikusten da orokorrean laugarren mailako ikasleek gehiago saihesten dutela informazioa.
- Informazioa alboratzeko motibazio ohikoena jasotzen duten informazio kopuru handiegia da, ikasleen % 21,5ek hala erantzun du. Hurrengo arrazoi bozkatuenak "informazioa ikusi ostean gaizki sentitzen naiz" eta fidagarritasun falta dira, lehenean emakumeak gehiago izanik eta gizonak bigarreanean.
- Laugarren mailako ikasleak dira informazioa gehien saihesten duten ikasleak.
- Ikasleen ia erdiak (% 47,7) bat egiten du "Sinesgarritasuna dute sare sozialetan ikusten ditudan albisteek" esaldiarekin.
- Unibertsitariei galdetu zaienean noraino gustatzen zaien komunikabide lokalen bidez herriko, auzoko ala hiriko aktualitatea jarraitzea, hamarretik 4 pasatxok aldeko erantzunak eman dituzte.
- Ikasleen % 91,9k uste du sare sozialek jendearen iritzietan eta portaeretan eragin handia daukatela. Izan ere, sare sozialek gizartean izan dezaketen inpaktua kontuan hartzen dute eta, hauteskunde inguruko esaldian ere hori islatzen da: ikasleen % 58,6 ados dago "Hauteskundeak daudenean, sare sozialetan ikusitakoak eragin handia izaten du jendeak botoa nori eman erabakitzerakoan" esaldiarekin.
- Neskek gehiago erabiltzen dute Instagram informatzeko eta mutilek X. Datuak mailaka aztertuta, TikTok beherakada handia nabaritzen da mailan gora joan ahala eta kontrakoa antzematen da Xren kasuan. Informatzeko sareak zelan erabiltzen dituzten jakin nahi izan denean, ikusi da ikasleen erdiak baino gehiagok sare sozialak erabiltzen dituela komunikabide nagusiek sare sozialetan partekatzen dituzten edukiak ikusteko.
- Informazioa jasotzeko gizonen formatu gogokoena Xko hariak dira (% 22,7), neskekiko hamar puntuko aldea ezarriz. Nesken lehenengo postuetan, aldiz, story-ak eta azpitituludun bideo laburrak nabarmentzen dira.

TELEBISTA

- Ikasleen ia % 70ek telebista erabiltzen du informazio iturri gisa.
- Albistegiak ikusteko kanal gogokoena zehazteko eskatu zaienean, La1 izan da aukeratuenen (% 24,4). Bigarren lekuan dago ETB2 (% 22,4).
- 4. mailakoek asko nabarmendu dute ETB2 albisteak kontsumitzeko orduan.
- Albistegietako sinesgarritasunari 7-8 bitarteko nota jarri dio ikasleen erdiak.
- Gazteek nahiago dituzte entretenimenduzko eta fikziozko edukiak albistegiak baino.
- Emakumezkoen %50,8k nahiago du entretenimenduzko edukia, gizonezkoen %25,9rekin alderatuta.
- Telebistaren kontsumo orokorrari erreparatuz, esan daiteke ikasleek La1, ETB2, FDF, Tele5 eta ETB1 kontsumitzen dute maila handi batean (% 16,29 eta % 10,07 artean). Dena den, gizonezkoek gehiago kontsumitzen dituzte La1 eta FDF; emakumezkoek, aldiz, ETB2 eta Tele5.
- Kanalen kontsumoa ikasketa-mailaren arabera aztertuta, agerikoa da lehenengo eta bigarren mailako ikasleek FDF lehenesten dutela, eta laugarren mailakoek ETB2.
- Gazteen % 72k ez du telebistan euskarazko edukirik ikusteko ohiturarik.
- Unibertsitarioen herenak, gutxienez, astean behin ikusten du telebistako edukiren bat euskaraz.
- Lau ikasletik hiruk ez du inoiz kontsumitzen bertako telebistarik.
- Ikasleen laurden batek 7ko nota ematen dio telebistari.